

Eraldaketa Osobeteaz IV. Topaketa

eta

iraultza bagauda

Félix Rodrigo Mora

Pentsatu barik, halaxe suertatu delako, IOri buruzko VI. Topaketa Nafarroan egingo da; zehazki, Arakil ibaitik metro batzuetara. Jorratuko dudan gaiaren konplexutasuna kontuan izan ezker, ibai horrek iraultza bagauda jokatu zen gunera eramaten gaitu¹.

Beraz, topaketarako honako hau proposatzen dut: burujabetasunaren, komunalismoaren eta askatasunaren alde, eta erromatarren estatu-erakundearen, horren aliatu doilorren eta mertzenario bisigodoen aurka, 13 urtez borroka egiten zutenei omenaldi bat egitea.

Tokia

Iraultza bagaudari dagokionez, bertakoen lurraldeari buruzko ohiko bertsioak zera dio: 441. urtean izan zela lehen jazoera, zehazten ez den leku batean; eta altxamendu herrikoia une garrantzitsuena 443. urtean jazo zela, “Araceli” edo “Aracelli” deritxon lekuan; hau da, —historiagileek orain arte— Korellaren (Nafarroa) alboko gune jendeztatu gabeko batean kokatu dutenean. Azken aurkikuntza arkeologikoak kontuan izan ezker, kokapen horri buruzkoak gaurkotu egin behar dira; izan ere, “*masio Aracaeli*” delakoa, erromatarren ezarpen administratibo eta militar garrantzitsua zena, Zamartze-n kokatu beharko litzateke, hau da, Uharte Arakiletik hurbil dagoen etxadi batean, non aurkitzen ari diren hainbat erromatar aztarna.

Pliniok dioenaren arabera, “*aracelitani*” izeneko biztanleak Vasconiako eskualde batekoak ziren; eta horrek, nire ustez, adierazten du “*Aracaeli*”ez zela udalerrri bat, ezpada eskualde bat, non altxamenduak abiatze

¹ Ondoko nire artikulua irakurtzea gomendatzen dut “*El golpe final al orden romano en Europa: la revolución bagauda en Vasconia en el siglo V conforme a lo expuesto por Salviano de Marsella*”.

erabakigarria izan zuen. Hortaz, esan dezakegu eze, baskoien mugimendu bagauda, Nafarroako erdialde-mendebalde-hegoaldean jazo zela, Arakail eta Ebro ibaien iturburu artean.

“Aracelitani” hitzak iraun egin du, zenbait toponimotan ikus daitekenez; besteak beste, Arakil ibaia, Ziordi zeharkatzen duena eta albo batetik Amarauna inguratzen duena, zeinak ortuak baititu aipatu topaketarako eraikinen eta ibai horren artean². Onartu ohi da: bere etimologia Arac-ili dela; euskaraz, Arak-eko hiria edo herri-gunea.

Jazoerak

Erromatar boterearen aurkako askapen-gerrak 13 urtez iraun zuen. Esana dudanez, lehen altxamendua 441. urtean izan zen; baina mobilizazio handia 443. urtean jazo zen, “Aracaeli” izeneko eskualdean. 449. urtean, bagaudek Tarazona hartu zuten, non gudari bisigodoak suntsitu zituzten (ordurako Erromaren aliatu eta mertzenario) eta bertako apezpikua hil. Geroztik, gudu-gunea ekialdera aldatzen da, egungo Huesca eta Lleida probintzietara. 454. urtean, Federiko buruzagi godoak dio eze, suntsitu egin dituela bagaudak, nahiz eta kontserbatzen den bagauden existentziaz geroztiko aipamen zehazkabe bat edo beste.

Zer jazo zen? Nire interpretazioaren arabera, bagaudak garaituak izan ziren, ezen ez suntsituak; eta erromatarren eta godoen gerra-aparatuaren jazarpean ziren ezker, Pirinioetan babestu ziren, hain justu eta alde malkartsuenean, Sobrarbe eskualdean, egun Huescan kokatua, eta sasoi haretan Euskal Herriaren parte historikoa zena, non euskaraz egiten zen. Han iraultza lantzen jarraitzen dute, hau da, gizarte-eredu berri bat eraikitzekotan dihardute. “Zuzenbide piriniarra” izendapena eta “lurraldeko zuzenbide ohiturazkoa” sinonimo direnez, sinesgarriago egiten da gorago esandakoa. Sobrarben gizarte berria finkatutakoan, eta zelan eta botere erromatarra deseginez doan eta segidan germanikoa; bada, Pirinioetan zehar hedatzen dira, euren jatorrizko lekuetara itzulirik, hain justu ere lehenago euskaldunen eremu zenaren zati handi bat eta osotasuna okupatuz, V. mendearen bukaerantz. Baina euren buruak babesteko gizaldietan egin beharko dute borroka, hegoaldean bisigodoen aurka eta iparraldean frankoen aurka. Egitate horrek erakusten digu eze, eratu zuten gizartea oso sendoa eta eragingarria zela

Altxamendua esplikatzen duen sakoneko zioa hauxe da: erromatarren gizarte-eraketa hondatu eta galdu egin zen. Sistema fiskala eta administratiboa deseginez doaz, ez da egiten galtzada erromatarren mantenimendurik, eta, batez ere, aparatu poliziala eta militarra ia atzendu egiten da; izan ere, ez dute harremanik Erromako buruzagiekin, soldaduek ez dute jasotzen soldatarik, eta ondorioz ekipoak eta horniketak desagertu egiten dira. Pentsatzen da eze, 432, eta 440. urteen artean, erromatar estatu-egiturak ia hondatuak direla Hispanian, eta hortik hara esplikatzen da 441. urteko altxamendua. Erromatarrek euren egitura deseginik ikustean zuten inpotentzia, godo germanikoen etorrerarekin konpontzen da, baina zati baten bakarrik.

Kanpoko kondizioei dagokienez, bagaudek oso ondo aukeratzen dute altxamendua egiteko unea. 422. urtean, hunoek Danubioa zeharkatzen dute, eta horrek izua zabaltzen du Inperioan, hurrengo hemeretzi urteetan zehar; izan ere, ezin ditu erabili aski soldadu eta baliabide iraultza amatatzeko, urruti baititu kokatuak. Hurrengo urtean, 451, erromatarrek eta germanikoen, batean, dihardute hunoen aurka ekialdean. Eremu Catalaunico-etako gudua jazo arte iraungo du egoera horrek; izan ere, Galiako iparraldean —aipatu urtean— Atila hunoen

² Eta Arga Aragon ibaira doa, eta horrek Ebron isurtzen ditu urak.

erregeari atzera eragiten diote. Data horretatik aurrera, Inperioak soldadu gehiago erabil dezake bagaudak erreprimitzeko; hiru urte geroago bagaudak ofizialki “garaitutzat” jotzen dira.

Lortu zutena

Bat. Batzarre burujabeen sare baten oinarrituriko gobernu-eraz burujabetza herrikoia gauzatzea, zeinaren oinarria eta muina baitzen batzarrearen botere herrikoia (batzarre irekia edo tokikoa). Batzarre horretan izendatutako ordezkariak bidaltzen ziren eskualdeko batzarrera (bete beharreko eginkizun batekin); eskualdekotik zapi herrialdekoetan egokira³, eta hortik Euskal Herri osokora. Ez dut dudarik, Goi Erdi Aroan halakorik izan zela; halaxe bakarrik, bat eginik, izan baitziren gauza inperio erasotzaileei (godo, franko eta musulmanei) aurre egin eta gehiago egiteko, X. mendera arte.

Bi. Esklabutzako erregimenari amaiera ematea, behetik gorako prozesu askatzaile baten bitartez, zeina ez baitzen izan Ameriketako, XIX. mendeko, esklabutzaren abolizioa bezalakoa. Errusiakoa goitik beherakoa izan zen, eta ez zuen helburu norbanakoaren askatasunak ezartzea, ezpada zapalketako beste lan-sistema bat ezartzea, hau da, soldatapeko lana. Horrexegatik bakarrik, gizakientzako heroi handienetako kontsideratu beharko lirateke bagaudak; baina, egia esan, horrexegatik berorregatik daude zokoratu-ahaztuak...

Hiru. Puntu horri lotua da norbanakoaren askatasunaren arazoa eta, areago dena, norbanakoari buruzko nozioa, horiexek baitira gizarte librearen ideia eta kategoria nagusiak. Kolektibitateko norbanakoa sortu zuten, ez burges indibidualista erakoa; familia-auzunean, udalean, eskualdean, lurraldeen eta azkenik Euskal Herian integraturikoa.

Lau. Bagauden sorkuntza erabateko eta guztizkoa da Komunala, zeina ez baitzen erromatarren eta germanikoen artean. Zenbait agerpen-era ditu: familia zabalarena, udalarena, eskualdearena, etab.

Bost. Estatu-zuzenbidea gaitzetsi ostean, eratuz joan zen ohiturazko zuzenbidea, herritarren benetako burujabetasunaren espresio dena.

Sei. Erromatar kultura, idatzia, ahozko kultura herrikoiaz ordeztzen da, eta horrek nortasun sakona ekarri zion euskaldunen herriari, zeinak ez baitzuen agertu sekula interesik bere kultura idazteko, eta hori ulertzekoa da, baldin eta funtsa eta muina badira herritar arrunten askatasuna, sormena eta jakituria.

Zazpi. Ordena erromatarra erori zelarik, bere Zuzenbidearen parte bat desagertu egin zen, hain justu ere emakume herrikoiauren aurkakoa zena, patriarkatua ahalbidetzen zuena. Patriarkatu ez zen abolitu beste patriarkatu bat ezartzeko, ezpada emakumea izan zedin gizaki libre, bere buruaren arduradun, aktiboa, burujabea eta moralitasuneko.

Zazpi. Indar armatuak ez dira gehiago Estatuaren monopolio; izan ere, jada ez dago Estatutik, eta indar armatu horiek osotzea komunitate herrikoiauren esku geratzen da. Udaletan oinarriturik, euskal milizia herrikoiak eratzen dira, oso bikainak izango zirenak, zeren gizaldietan zehar defendatu baitzuten euskal lurraldea, arerioak eta erasotzaileak garaituz.

³ Konpromisoa hartua dut, hilabete batzuk barru eginda izango dudala Bizkaiko Foruari buruzko estudio bat; izan ere, nire irudiko bertan jasotzen baitira ondoen iraultza bagaudaren arnas epikoa eta lorpen bikainak.

Zortzi. Lana askatasunezko da, zeren gizaki oro baita libre, Hortik hara, hainbat erako elkar-laguntzako sistema sortzea: produkzioarakoak, elkar artatzekoak (atxolorra), herri-lanetarakoak, etab. Halako lana da: auzolanaren edo azuneko lan komunitarioaren etorkia.

Zortzi lorpen horiek bakarrik aipatzen ditut, ezin bainaiteke luzatu. **Gizaldiak aurrera egin ahala, gizarte-eredu halakoa mendebaldeko Europa osora hedatuko da, eta da gizakiaren historia ezagunean jasotako progresu eta aurrerabiderik handiena.**

2020ko ekaina